

Aurten ez nazute ikusiko
«Centenario» jotzen nere clarinetarekin,
bañan nere biotza zuen tartean arkituko
da...

SAN FRANCISCO (CALIFORNIA)

Nolabait asi nai nuke eta or nioa emengo berri batzuek bialtzeke asmo onenarekin, Errenderiko «OARSO» errebigistaren bitartez eta jakin dezaten nere erriko lagun askok oraindik bizi naizela, bai jauna. Abustuan beteko da urtea, Ipar Ameriketako lur auetara etorri giñala. Reno (Nevadan) lau illabete igaro genituen. Erri au dana joko etxe edo Kasino ikusgarriz bete dago, bertan jendeak zenbat milloi jokatzan dituan ikusi gabe, ezin sinistu leike!! arrigarria benetan!!

Euskaldun gutxiarekin topatu nintzan, eta auetako geienak artzantzan ibilliak. Oien artean Donostiar bat ezagutu nuen, garai batean «Touringo» ostikalaria izana. Bere izena Joxe Moulian; Larre anaiak, Braulio Sagarzazu, Txikilin eta abar ziran garai arteko jokalaria.

Emengo euskaldunak, euskaldun bezela gauza gutxi dira, beren Euskal Erria «dolarra» da. Bertan badira bi edo iru jateke euskaldun izena dutenak, eta benetan ondo jaten da, eta Euzkadiko berriak jakiteko ortik etorri bear dute.

Cabonetan, Renotik, San Francisco erri aundi onetara etorri giñan eta ordutik oraindano emen bizi gera gure alabaren bazterrean. Emengo izatea neretzat ez da pozgarria, erri aberatsa, erri bikaña, bañan tristia!! Orko umorea falta da emen. Eskerrak orain iru illabete zabaldu zutela Euskal-etxe bikain bat: «Basque Cultural Center» ipiñi diote izen bezela. Etxea benetan ikusgarria da; pelota leku bikaña, pesta tokiak ederrak; bazkide geienak lapurditarrak dira, naparrak ere badira. Tarteka, tarteka, festaren batera joaten naiz eta lapurditar auekin gure antziñeko abesti batzuek, nere aspoaren laguntzarekin, abesten ditugu, gañontzian! bakardade osoan bizi naiz!! Gaur oraindik, eskerrak telebistan ikusi detala Real bigarren aldiz txapeldun atera dala, Atotxako zelaian, eta egia esan nere biotzaren poz aundienarekin. Izaten ditut tarteka erriko berriak, ez ordea garai batean XEY taldean abesten nuenian bezela.

Aurten ez nazute ikusiko «Madalen» jaietan, «Centenario» jotzen nere clarinetarekin, bañan beti bezela nere biotza eta anima zuen tartean arkituko da, eta baldin bizi banaiz, datorren urtean or ikusiko duzue erritar guziek, umorea ez detala galdu, naiz eta urteak aurrera joan.

Uste det Jaunak lagun, estropada garaiean zuen artean arkitzea. Badakit nere lagun jator asko joan dirala ludi onetatik... guztiok bide berean gabiltza.

Nere erri maitea asko aunditu da, aruntz joaten naizenean, erdiak ez ditut ezagutzen, auri barkamena eskatzen diet, eta bizi zeraten nere lagun zar guziei... itxaron lasai, laister ikusiko gaituk.

Orain, emendik, Ipar Ameriketa onetatik or bialtzen dizuet besarkadarik maitekorrena, eta nere izenean, joan dan «Madalen» bezperan bezela, Mendizabal anaiak, Etxebarria, abeslari bikain zeraten danori: abestu «Menudo Menú», orduan ainbat. Besterik gabe igaro jai guziak umore berexi orrekin, ori opa dizue zuen lagun eta erritar.

OLASKOAGA'tar XABIN'ek

ERRITAR BATEN BERRIAK